

JUAN DE LA CIERVA DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZA DEIALDIAK 2016: PRESTAKUNTZA MODALITATEA («FORMACIÓN»)

*MINECOk 225 laguntza banatzeko deialdia egin du doktore gazteen kontratazioa bultzatzeko Espainiako I+G guneetan, betiere ikertzaileak doktorego aurreko prestakuntza jaso zutenez I+G gunez **bestelakoetan**.*

Diru laguntzen ezaugarriak:

225 laguntzarako deia egin da, horietatik 4 gorde direlarik, % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeko.

Kontratuaren ezaugarriak:

Kontratuak, gehienez, bi urterako dira. Onuradunek 21.500 euro gordin jasoko dituzte urtean.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- a. Ikertzaileak eskatu behar du I+G gune batean txertatzea, baina hori **ezin da izan** berak doktorego aurreko prestakuntza **jaso zuen I+G gune bera**. Honi dagokionez, bereizi behar dira doktore titulua ematen duen gunea —beti dena tesia defendatzen deneko unibertsitatea— eta 42.1.a artikulua aipatzen duen gunea, hau da, doktorego programa nagusiki garatu den lekua, «doktorego programa» esatean adierazi nahi delarik doktore titulua lortzeko gaitasun eta trebetasunak eskuratzeko egiten den ikerketa jardueren multzoa.
- b. Doktore graduaren jabe izatea honako data hauetan (lortutako lehenengo titulua):

EGOERA	EPEA
Txanda orokorra.	2015/01/01etik 2016/12/31ra bitartean.
Amatasun edo aitatasun atsedena.	Epe orokorra baino urtebete gehiago, atsedena 2015/01/01etik eta 2017/01/26ra eduki bada.
Eskatzailearen gaixotasun edo istripu larria (gutxienez, 3 hilabete).	Epe orokorrari gehituko zaio justifikatutako bajaren pareko denbora, hilabete osoetan eta gorantz biribilduta (baja gertatu bada 2015/01/01etik 2017/01/26ra bitartean).
Mendekotasuna duten pertsonen zaintza (gutxienez, 3 hilabete).	Epe orokorrari gehituko zaio justifikatutako aldia, hilabete osoetan eta gorantz biribilduta (egoera hori gertatu bada 2015/01/01etik eta 2017/01/26ra bitartean).
Ezgaitasunak dituzten pertsonen txanda.	2014/01/01etik 2016/12/31ra bitartean.

- c. Eskaririk ez aurkeztu izana «Ramón y Cajal» eta «Juan de la Cierva: Incorporación»ko 2016ko deialdietan.
- d. Lehenago «Juan de la Cierva» edo doktorego ondoko prestakuntzarako laguntza baten onuradun gertatu ez izana, kontuan hartu gabe ikertzailea benetan txertatu zen I+G gunean ala ez.

UPV/EHUko tutoreen betebeharrak:

Tutoreek egiaztatu beharko dute UPV/EHUrekiko lotura funtzional edo kontratu bidezkoa dutela eskaria aurkezten denetik laguntzak iraungo duen bi urteetan.

GARRANTZITSUA:

IAEk ez du balidatuko betebeharrak hau betetzen ez duen eskaririk.

Eskariak aurkezteko epea (hautagaien zatia):

2017ko urtarrilaren 12tik urtarrilaren 26ko 15:00ak arte.

GARRANTZITSUA:

Hautagaiak izango dira eskaria behar den bezala eta epearen barruan aurkeztearen arduradunak. UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak epe gehigarri bat izango du, **2017ko otsailaren 2ra arte**, aurkeztutako eskariak balidatzeko.

Hautagaiak nola egin behar duten eskaria:

Eskatzaileek pauso hauek egin beharko dituzte:

1. Izena eman eskatzaileen erregistro bateratuan (RUS), ikertzaileen erregistroaren atalean: <https://sede.micinn.gob.es/rus/>
2. Eskaria egiteko formularioa bete honako aplikazio honetan:
<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.dbc68b34d11ccbd5d52ffeb801432ea0/?vgnnextoid=63b7c44759da7510VgnVCM1000001d04140aR CRD&vgnnextchannel=11f35656ecfee310VgnVCM1000001d04140aRCRD>

Gomendagarria da **ohiko galderen zerrenda** kontsultatzea, MINECOren webgunean:

http://www.idi.mineco.gob.es/stfls/MICINN/Ayudas/PE_2013_2016/PE_Promocion_e_Incorporacion_Talento_y_su_Empleabilidad/FICHEROS/SE_Formacion/Ayudas_Juan_Cierva_Formacion_2016/Consultas_Frecuentes_FJC_2016.pdf

UPV/EHU n egin beharreko tramitea:

Eskatzaileek dokumentazio hau igorri beharko dute pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora **2017ko urtarrilaren 26a baino lehen (bera barne)**:

- a. Eskari orria
- b. Ikertaldearen historiala, [MINECOren ereduaren arabera](#).
- c. Hautagaiaren CVa, [MINECOren ereduaren arabera](#).
- d. NANaren fotokopia
- e. Doktore tituluaren fotokopia
- f. Datu pertsonalen fitxa, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren (IAE) webgunean eskura daitekeen eredu.

IAEk ez du balidatuko dokumentazioarekin batera igorri ez den eskaririk.

GARRANTZITSUA:

Gainera, eskaria egiteko formularioa **PAPEREAN** bidali beharko dute, jatorrizko sinadurarekin, Deialdien Atalera posta arruntaz edo barruko postaz:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)
Errektoregoaren eraikina
Sarriena auzoa, z/g
48.940 Leioa (Bizkaia)

MINECOri kontsultak egiteko:

Eskatzaileek formulario hau erabili beharko dute MINECOri administrazio eta informatikaren arloko kontsultak:

<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.bdf7d463c0fe168affe67a10d14041a0/?vgnnextoid=717be8a86769c210VgnVCM1000001a04140aRCRD&vgnextchannel=d9581f4368aef110VgnVCM1000001034e20aRCRD>

UPV/EHUri kontsultak egiteko:

Zerbitzua hobeto eman dezagun, mesedez bidali kontsultak posta elektronikoz pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, eta gaiaren eremuan hau jarri: "Juan de la Cierva-Prestakuntza".

Informazio gehiago:

<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.dbc68b34d11c cbd5d52ffeb801432ea0/?vgnnextoid=63b7c44759da7510VgnVCM1000001d04140aRCRD&vgnnextchannel=11f35656ecfee310VgnVCM1000001d04140aRCRD>